

INFORMAZIOA ETA UKRAINA

**35. TXOSTENA
2022KO MAIATZA**

INFORMAZIOA ETA UKRAINA

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako seigarren inkestan jasotako emaitzetako batzuk. Informazioa, Ukraina eta Twitterri buruzko gaiak landu dira nagusiki inkestan eta txosten honetan informazioarekin eta Ukrainarekin erlazionatutako emaitzak bildu dira.

1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerketa Unitateak kudeatzen ditu.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2022ko apirilaren 4tik 10era bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Panelkideek aktualitateari buruz informatzeko dituzten ohitura eta iturriari buruzko datuez gain, Ukrainako gerraren inguruan informatzeko dituzten joerak ere azaltzen dira txostenean. 1.176 erantzun hartu dira kontuan, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).




2. INFORMAZIOA

Inkesta honetan panelkideek informatzeko dituzten ohiturak ezagutu nahi izan dira, bai orokorrean eta baita Ukrainako gerraren inguruan ere. Segidan jasotzen dira gai horiei buruzko xehetasunak.

Orokorrean informazioa eskuratzeko nora jotzen duten galdetuta, inkestatuen % 65,7rentzat sare sozialak (Instagram, Twitter, Facebook, Youtube...) dira informatuta egoteko iturri nagusiak. Segidan, % 14,8k telebista tradizionala aipatzen du, % 8,1ek egunkariak eta aldizkariak ez diren interneteko bestelako webguneak, eta % 7,3k egunkariak (paperean eta webgunean). % 3,1ek beste bideren bat aipatu du, eta % 1,1ek dio ez dela inoiz informatzen.


1. Irudia – Orokorrean, zein da informatuta egoteko gehien erabiltzen duzun iturria?



Iturria: Ikusiker Applika +

Sare sozialen kasuan, Twitter da informatzeko erabiltzen den sare sozial nagusia, % 38,5ek aipatuta, eta segidan Instagram dator, % 31,7k aukeratuta, bi hauek izanik iturri nagusiak. Oso atzetik, Youtube % 8,7k aukeratu du eta % 5 inguruk Whatsapp eta TikTok.

2. Irudia – Sare sozialen kasuan, zure ustez zein da informatuta egoteko gehien erabiltzen duzuna?



Iturria: Ikusiker Applika +


Informatzeko jarraitzen dituzten kontu edo profilei buruz galdetzean, egunkarien profilak nagusitu dira gehienbat. Aipatuena El País egunkaria izan da, El Correo, Berria eta El Mundo dituelarik atzetik. Hiru hauekin batera es.decirdiario sare sozialetan jaiotako informazio iturria ere oso aipatua izan da, baita The Wild Project youtubeko kanala eta Ines Hernand komunikatzailea ere. Naiz eta EITB euskal hedabideak ere aipatuener artean daude.



Iturria: Ikusiker Applika +

Jaso nahi den informazioa zonalde geografikoaren arabera nola jasotzen den jakin nahi izan da eta desberdintasunak nabaritzen dira informatzeko egokienak baloratzen diren iturri motetan. Oro har, sare sozialak eta telebista tradizionala dira hobekien baloratzen diren iturriak. Munduko berriak direnean, sare sozialek garrantzia irabazten dute (%54,5ek uste du direla egokienak), eta Espainiako edo norbere komunitate autonomoko / Euskal Herriko berriak direnean, telebista tradizionalak hartzen du pisua (% 47,5ek eta %42,2k baloratzen ditu egokienak, hurrenez hurren). Azkenik, norbere auzoko, herriko edo hiriko berriak jakin nahi direnean garrantzia txikiagoa dute bi iturri horiek, eta pisu berezia hartzen dute aldizkari edo egunkari lokalek.


3. Irudia – Toki bakoitzeko albisteak jarraitzeko zein iturri baloratzen den egokiena.



Iturria: Ikusiker Aplikatu +

Telebistako albistegiak ikusteko, ETBko bi kanaletakoren bat dute gustukoena inkestuetan hamarretik lauk, % 24,1ek ETB2 eta % 16,9k ETB1. Segidan datoz La 1 (% 11,6k aipatuta), Antena 3 (%10,7k aukeratuta), Tele 5 (%9,6rentzat) eta La Sexta (% 7,6).


4. Irudia – Telebistako albistegiak ikusteko, zein da gustukoena duzun kanala?



Iturria: Ikusiker Aplikatu +

Gustukoena duten kanaleko albistegiaren sinesgarritasunaz galdetuta, 0 eta 10 bitarteko eskala batean, 6,3ko batezbestekoa ematen zaie. Gehientsuenak 7 eta 8ko puntuazioan kokatzen dira, lehenengoan % 26,7 eta bigarrenean % 21,6.


5. Irudia – Zenbateraino iruditzen diren sinesgarriak gustukoena duten kanaleko albistegiak.



Iturria: Ikusiker Applika +

Inkestatuena ia erdiek asteen behin edo birritan ikusten ditu albistegiak telebistan, zehazki % 49,1ek. Hori baino sarriago ikusten dituzte albistegiak inkestatuena % 33,4k, eta, aldiz, % 17,5ek ez dituzte inoiz ikusten.

6. Irudia – Zein maiztasunekin ikusten dituzu albistegiak telebistan?




Iturria: Ikusiker Applika +

3. UKRAINAKO GERRA

Ukrainako gerraren inguruan, erdiek baino gehiagok diote gutxi informatzen direla. Herena pasatxok uste du nahikoa informatzen dela (% 35,1ek) eta % 5,8k asko informatzen dela dio, batere informatzen ez direnak adina.


7. Irudia – Jarraitzen duzu Ukrainako gerrari buruzko informazioa?



Iturria: Ikusiker Applika +

Interesari buruz galdetuta, aldiz, % 15,7k dio interes handia pizten diola gerrak, 10 panelkidetik 7k (% 70,1) interesatzen zaiola dio. % 13,2a interes txikia duela adierazi du edo batere interesik erakusten ez dutenak % 1a besterik ez dira.


8. Irudia – Baduzu interesik gai honi buruz? (Informatuta egotea gustuko duzu, kezkatzen zaitu gaiak...)



Iturria: Ikusiker Applika +

Gerra honetaz informatzeko, nagusiki bi iturri erabiltzen dira, erantzuleen hamarretik zortzik baino gehiagok aukeratuak: sare sozialak (Instagram, Twitter, Facebook, Youtube...) % 47,7k aipatu ditu; eta telebista tradizionala (telebista lokala, ETB, Telecinco, La Sexta...) zertxobait gutxiagok, % 36,1ek, aukeratu du. Segidan datoz egunkariak (% 8,8) eta internet (% 3,6).


9. Irudia – Zein iturri erabiltzen duzu gehien Ukrainako gerrari buruz informatuta egoteko?



Iturria: Ikusiker Applika +

Sare sozialen kasuan, Twitter da gehien erabiltzen dena Ukrainako gerraz informatuta egoteko (% 40,5ek aipatzen du) eta segidan Instagram dator (% 28,1ek esanda); bien artean inkestaturen hamarretik ia zazpi osatzen dute.


10. Irudia – Sare sozialen kasuan, zein da Ukrainako gerrari buruz informatuta egoteko gehien erabiltzen duzuna?



Iturria: Ikusiker Applika +

Ukrainako gerrarekin amaitzeko, esaldi batzuen inguruko adostasun maila adierazteko eskatu zaie. Jasotako adostasun mailaren arabera ordenatuta ikusten dira hurrengo grafikoan esaldi guztiak (indize baten arabera, ados daudenen muturra eta desados daudenen proportzionalki elkarri kenduta). Lehenengo lau adierazpenen kasuan, inkestatuen erdiak baino gehiago ados edo oso ados daude. Adostasunik handiena jaso duen adierazpena honakoa izan da: “Ukrainako gerra beste toki batzuetara zabalduko ote den beldur naiz”, eta segidan “albistegietan entzuten dudana kontrastatzen saiatzen naiz beste informazio iturri batzuk erabiliz”. Hirugarren lekuan “ukrainakoa ulertzeko lagungarriak egiten zaizkit familia eta lagunek esaten dizkidatenak” adierazpena gelditu da, eta laugarrenean “ondo ulertzen dut ukrainan gertatzen ari dena eta zeintzuk diren gerraren arrazoiak”. Azken bi adierazpenetan, inkestatuen zati handi batek positiorik ez hartzea aukeratzen du (“ez ados, ez desados” hautatuta): “Ukraina eta Errusiaren arteko negoziatuetatik etorriko da irtenbidea” eta “Ukrainako gerrari buruz informazio gehiegi dago komunikabideetan”.

11. Irudia –Adostasun-maila esaldi batzuekin



Iturria: Ikusiker Aplikazioa +